kubideak, eskurapena kasu batean bakarrik hartuko da oinordetza titulutzat: ondasun eta eskubideen esleipen hori xedapen zabalago baten parte denean eta xedapen horretan, gutxienez, badagoenean beste elementu bat jaraunsleen izendapenari lotuta tresna itundu batean, beste ondare elementu batzuei dago-kienez. Beste edozein kasutan, oinordetza itun hori «inter vivos» egindako doako negozio juridikotzat hartuko da.

Oinordetza-eskubide guztiei uko egiteko oinordetza itune- tan, uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzen baditu are izendatzailea hil ondoren ere, eskurapen hori «inter vivos» egin- dako doako negozio juridikotzat hartuko da hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat, oinordekoei legokiekeen tributazioa ezer- tan eragotzi gabe.

d) Komisarioak testamentu-ahalordea erabiltzetik datozen egintzak, hartzen duten forma zeinahi dela ere.

e) Ezkontza-itunetan oinordekoa izendatzea.

f) Hildako kide edo enplegatuen senideei enpresek eta en- titateek orokorrean emandako kopuruak jasotzeko eskubidea dakartenak, haien modalitatea edo izena edozein dela ere, bal- din eta berariaz ezarrita ez badago kopuru horiek zergapetu behar direla 4. artikuluko c) letran edo urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zer- gari buruzkoa, xedatutakoaren arabera.

g) Euren lana egiteagatik testamentugileek albazeei esle- itutako diru kopuruak jasotzeko eskubidea ematen dutenak, ko- puru horiek jarauntsiko ondasunen balio egiaztatuaren 100eko 10 gairiditzen dutenean.

2. Jarauntsi, legatu edo beste edozein oinordetza tituluren bidez egiten diren ondasun eta eskubideen eskurapenak kausa- tzailearen heriotza-egunean egindakotzat joko dira, eta, beraz, zerga exijitzeko aski izango da eskualdaketa eragin duen egita- tea frogatuta egotea, nahiz eta agiriak, inbentarioak edo bana- ketak formalizatu edo likidatu gabe egon.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko jarauntsi bidezko eskurapenak eraginkortasuna unean bertan duten oi- nordetza itunen ondorio direnean, komisarioak testamendu- ahalordea erabiliz egiten direnean edo haien arazoia ahalorde hori azkentzea denean, azken horiek hartzen duten forma edo- zein dela ere.

6. artikulua. «Inter vivos» moduko doako negozio juridikoak.

Dohaintzaz gainera, besteak beste honako hauek hartzen dira, zerga honen ondorioetarako, «inter vivos» moduko doako negozio juridikotzat:

a) Zorra eskuzabaltasunez barkatzea, osorik zein zati ba- tean.

b) Eskubideei uko egitea, pertsona jakin baten alde.

c) Beste baten zorra kontraprestaziorik gabe bereganatzea zorduna libratzeko, 36. artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik.

d) Epaiketa edo arbitraje batean bestearen alde atzera egin edo amore ematea, eskuzabaltasunez, eta, orobat, trans- akzio bat egitea, horren ondorioa asmo berberaz egindako uko egite bat, atzera egite bat edo amore emate bat denean.

e) Bizitza aseguru kontratua, aseguratuak bizirik iraunez gero, eta banakako aseguru kontratua, kontratugilea ez den aseguraturia hilez gero, kasu batean eta bestean baldin eta onu- raduna eta kontratugilea pertsona bera ez badira.

f) Uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea hiruga- rren baten jarauntsiko oinordetza eskubideak xedatzearen on-

a parte de los derechos sucesorios solamente tendrá el carácter de título sucesorio cuando la atribución de los bienes y dere- chos sea parte de una disposición más amplia en la que, al menos debe concurrir otro elemento vinculado con la designa- ción hereditaria en un instrumento paccionado respecto a otros elementos patrimoniales diferentes. En otro caso, tendrá el ca- rácter de negocio jurídico a título gratuito e «intervivos».

En los supuestos de pactos sucesorios de renuncia a la tota- lidad de los derechos sucesorios, las adquisiciones de bienes y derechos por la persona renunciante, incluso con posterioridad al fallecimiento de la persona instituyente, tendrán la consideración de negocios jurídicos a título gratuito e «intervivos» de acuerdo con lo establecido en el artículo siguiente, sin perjuicio de la tri- butación que corresponda a las personas sucesoras.

d) Los actos que resulten de la utilización del poder testa- torio por la comisaria o el comisario, cualquiera que sea la forma que adopten.

e) La designación de persona sucesora en capitulaciones matrimoniales.

f) Los que atribuyan el derecho a la percepción de las can- tidades que, cualquiera que sea su modalidad o denominación, las empresas y entidades en general entreguen a los familiares de miembros o personas empleadas fallecidas, siempre que no esté dispuesto expresamente que estas percepciones deban tri- butar de acuerdo con lo dispuesto en la letra c) del artículo 4 o en la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

g) Los que atribuyan el derecho a la percepción de las can- tidades asignadas por las personas testadoras a los y las albace- as por la realización de sus trabajos como tales, en cuanto ex- cedan del 10 por 100 del valor comprobado del caudal hereditario.

2. La adquisición de bienes y derechos por herencia, lega- do o cualquier otro título sucesorio se entenderá realizada el día del fallecimiento de la persona causante, por lo que para exigir el impuesto bastará que esté probado el hecho originario de la transmisión, aunque no se hayan formalizado ni liquidado los documentos, inventarios o particiones.

Lo dispuesto en el párrafo anterior no resultará de aplica- ción a las adquisiciones hereditarias que sean consecuencia de pactos sucesorios con eficacia de presente o que resulten de la utilización del poder testatorio por el comisario o la comisaria, o de cualquier causa de extinción de dicho poder, cualquiera que sea la forma que adopten estos últimos.

Artículo 6. Negocios jurídicos a título gratuito e «inter vivos».

Entre otros, a los efectos de este impuesto, tienen la consi- deración de negocios jurídicos a título gratuito e «inter vivos», además de la donación, los siguientes:

a) La condonación de deuda, total o parcial, realizada con ánimo de liberalidad.

b) La renuncia de derechos a favor de persona determinada.

c) La asunción liberatoria de la deuda de otra persona sin con- traprestación, salvo en el caso previsto en el artículo 36.

d) El desistimiento o el allanamiento en juicio o arbitraje en favor de la otra parte, realizados con ánimo de liberalidad, así como la transacción de la que resulte una renuncia, un des- istimiento o un allanamiento realizados con el mismo ánimo.

e) El contrato de seguro sobre la vida, para caso de supervi- vencia de la persona asegurada, y el contrato individual de seguro para caso de fallecimiento de la persona asegurada que sea per- sona distinta de la persona contratante, cuando en uno y otro caso la persona beneficiaria sea distinta de la persona contratante.

f) La adquisición de bienes y derechos por la persona renun- ciante como consecuencia de la disposición de los derechos su-

dorioz, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. apartatuko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat.

7. artikulua. Aldizkako prestazioak.

1. 4. artikuluko c) letran, 5.1 artikuluko f) eta g) letretan, eta 6. artikuluko e) letran aipatzen diren kopuruak jasotzea zergari lotuta egongo da, bai batera jasotzen direnean, eta bai aldizkako, bihurtzeko edo aldi baterako prestazio moduan jasotzen direnean.

2. Aldizkako, bihurtzeko edo aldi baterako prestazioak jasotzea 49. artikuluko zergaren sortzapenari buruz xedatutakoaren arabera arautuko da.

Zerga oinarria zehazteko, Administrazioak zilegi izango du pentsioaren uneko balioaren kalkulua aktuarialera jotzea, perituen irizpenaz baliatuta.

8. artikulua. Zergari lotu gabeko kasuak.

Ez daude zerga honi lotuta:

a) Foru komunikazioa desagitean, eta komunikatutako ondasunen ordainean, alargundutako ezkontidearen alde edo izateko bikotekidearen alde egiten diren adjudikazioak.

b) Hartzekodun batek, lehenagoko zor bat ordainduko dela bermatzeko sinatu den bizitza aseguru baten onuradun izanik, jasotzen dituen kopuruak, baldin eta zirkunstantzia horiek behar bezala frogatuta badaude.

9. artikulua. Kalifikazio printzipioa.

Eskurapenaren arrazoi den kontratuaren edo egintzaren benetako izaera juridikoaren arabera ordainaraziko da zerga, alderdiek kontratu edo egintza horretarako aukeratutako era edo hari emandako izena edozein dela ere. Bazterrean utziko dira kontratu edo egintzaren baliozkotasunari eta eraginkortasunari eragin diezaioketen akatsak, formazkoak izan zein inbrentsekoak izan, itzulketarako eskubidea, halakorik bada, eragotzi gabe.

10. artikulua. Baldintzak betetzea.

Baldin eta zergari lotutako ondare gehikuntza ekarri duen egintza edo kontratuari baldintza bat bete beharra ezarri bazaio, baldintza hori legeria zibilean ezarritako preskripzioei jarraituz kalifikatuko da.

Etengarri bezala kalifikatuz gero, zerga ez da ordainduko baldintza bete arte, eta ondasunak erregistro publikoetan inskribatu ahal izango dira baldin eta egindako idazpenaren orri-bazterrean jasota uzten bada likidazioa geroratu dela.

Suntsiarazle bezala kalifikatzen bada, zerga exijituko da, baldintza betez gero bidezkoa izan litekeen itzulketaren kalterik gabe.

11. artikulua. Eskualdatutako ondasunak zerga ordaindu beharri lotzea.

1. Eskualdatzen diren ondasun eta eskubideak, nor ere den haien jabea, eskurapena kargatzen duen zerga ordaintzeko erantzukizunari lotuta geratuko dira, zerga hori likidatuta egon edo ez, salbu eta jabea erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat denean edo, ondasun higigarri inskribaezinen kasuan, ondasunen eskurapena jendaurreko establezimenduetan onustez eta titulu zuzenarekin eskuratu direla justifikatzen denean.

2. Onura fiskal baten behin betiko eraginkortasunak ezinbesteko baldintza badu zergadunak edozein beharkizun gerora betetzea, eta jabaria zatituta egonik haren kontsolidazioak autolikidazio bat egin beharra ekartzen duen kasuetan, Zerga Administrazioak zirkunstantzia hori jaso beharko du dokumentuan, aurkezleari itzuli baino lehen, eta Jabetzako eta Merkataritzako erregistrotzailerek, albo-oharraren bidez, jasota utzi beharko dute eskualdatutako ondasunak bidezko likidazioak ordain-

cesorios pertenecientes a la herencia de un tercero, de acuerdo con lo establecido en el segundo inciso del apartado 2 del artículo 100 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.

Artículo 7. Prestaciones periódicas.

1. La percepción de las cantidades a que se refieren la letra c) del artículo 4, así como las letras f) y g) del artículo 5.1 y la letra e) del artículo 6, estará sujeta al impuesto, tanto si se reciben de una sola vez como si se reciben en forma de prestaciones periódicas, vitalicias o temporales.

2. La percepción de prestaciones periódicas, vitalicias o temporales se regirá por lo dispuesto en el artículo 49 sobre el devengo del impuesto.

La Administración podrá acudir para determinar la base imponible al cálculo actuarial del valor actual de la pensión a través del dictamen de sus peritos.

Artículo 8. Supuestos de no sujeción.

No están sujetos a este impuesto:

a) Las adjudicaciones que, al disolverse la comunicación foral, se hagan en favor del cónyuge viudo o pareja de hecho, en pago de su mitad de los bienes comunicados.

b) Las cantidades percibidas por una persona acreedora, en cuanto beneficiaria de un contrato de seguro sobre la vida celebrado con el objeto de garantizar el pago de una deuda anterior, siempre que resulten debidamente probadas estas circunstancias.

Artículo 9. Principio de calificación.

El impuesto se exigirá con arreglo a la verdadera naturaleza jurídica del acto o contrato que sea causa de la adquisición, cualquiera que sea la forma elegida o la denominación que las partes le hayan dado, prescindiendo de los defectos tanto de forma como intrínsecos que puedan afectar a su validez y eficacia, sin perjuicio del derecho a la devolución en los casos que proceda.

Artículo 10. Concurrencia de condiciones.

Cuando el acto o contrato que sea causa de un incremento patrimonial sujeto al impuesto esté sometido al cumplimiento de una condición, su calificación se realizará con arreglo a las prescripciones de la legislación civil.

Si se calificare como suspensiva no se satisfará el impuesto hasta que la condición se cumpla, pudiendo procederse a la inscripción de los bienes en los registros públicos, siempre que se haga constar al margen del asiento practicado el aplazamiento de la liquidación.

Si se calificare como resolutoria se exigirá el impuesto, sin perjuicio de la devolución que proceda en el caso de cumplirse la condición.

Artículo 11. Afección de los bienes transmitidos.

1. Los bienes y derechos transmitidos quedarán afectos a la responsabilidad del pago del impuesto, liquidado o no, que grave su adquisición, cualquiera que sea su poseedor, salvo que éste resulte ser un tercero protegido por la fe pública registral o se justifique la adquisición de los bienes con buena fe y justo título en establecimientos abiertos al público, en el caso de bienes muebles no inscribibles.

2. Siempre que la definitiva efectividad de un beneficio fiscal dependa del ulterior cumplimiento por el contribuyente de cualquier requisito, y en los casos en los que la desmembración del dominio deba dar lugar a una autoliquidación posterior por su consolidación, la Administración tributaria hará constar esta circunstancia en el documento antes de su devolución a la persona presentadora, y las y los responsables de los Registros de la Propiedad y Mercantiles harán constar, por nota marginal, la afección

tzeko obligazioari lotuta geratzen direla onura fiskala izateko baldintza betetzen ez den kasurako, edo jabaria foru arau hone-tan xedatutakoaren arabera kontsolidatzen den kasurako.

12. artikulua. Presuntzioak.

1. Kostu gabeko eskualdaketa bat egin dela pentsatuko da, zerga erregistroetatik edo Administrazioaren esku dauden datuetatik ondorioztatzen denean pertsona baten ondarea murriztu dela eta, aldi berean edo geroago, baina betiere foru arau honen 50. artikuluan jasotako preskripzio epearen barruan, horren pareko ondare gehikuntza izan duela ezkontideak edo izatezko bikotekideak, aurreko edo ondorengo ahaideek, jaraunselek edo legatu-hartzaileek.

2. Aurreko ahaideek ondorengo ahaide adingabeen ordezkari moduan egiten dituzten kostu bidezko eskurapenetan, pentsatuko da ondorengo horiei kostu gabeko eskualdaketa bat egin zaiela eskualdatutako ondasun edo eskubideen balioagatik, non eta ez den frogatzen adingabearen ondarean bazeudela eskurapen hori egiteko behar besteko ondasun edo eskubideak, eta xede horretarako erabili direla.

3. Kasuan kasuko likidazioak bidali aurretik, aurreko apartatuetan aipatutako presuntzioak interesdunei jakinaraziko zaizkie, egoki irizten dituzten alegazioak eta frogak aurkez ditzaten.

4. Ondasunak eta eskubideak dohaintza bidez edo doako beste edozein negozio juridiko dela bide «inter vivos» eskuratzen badira ondorengo ahaideen edo adoptatuen alde, eta eskurapen hori egin aurreko lehen lau urteen barruan ondasun edo eskubide horiek beste ondorengo ahaide batek edo adoptatu batek lehenagotik eskuratu baditu aurreko ahaidearen edo adoptatzailearen alde, dela dohaintza dela «inter vivos» moduko doako negozio juridiko baten bidez, eskurapen horrek tributatu du lehen dohaintza-emaileak azken dohaintza-hartzailearekin duen ahaidetasuna kontuan hartuta, eta, behar den kasuetan, lehenengo dohaintzagatik ordaindutako kuota deskontatuta.

13. artikulua. Salbuespenak.

Honako hauek daude zerga honetan salbuetsita:

a) Baserriaren eta hari lotutako ondasunen kostu gabeko eskualdaketak, aurreko ahaideek beren ondorengoei egindakoak, betiere finka hori nekazaritza, basogintza edo abeltzaintzarako erabiltzen bada eta eskualdatzaileak berak ustiatzen badu.

Eskualdaketa salbuetsita egoteko, ezinbesteko baldintza izango da baserria eta hari lotutako ondasunak eskuratzailerak berak ustiatzea 5 urtez gutxienez.

b) Funtzionario aktibo eta pasiboek eta langileek beren heriotzaren ondoren sortuta eta jaso gabe uzten dituzten soldatak eta gainerako ordainsariak.

c) Terrorismo ekintzengatik edo nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan egindako zerbitzu publikoengatik, bizitza aseguruaren onuradunek jasotzen dituzten kopuruak. Salbuespen hau onuradun izan daitezkeen gutzietatik aplikatuko zaie.

d) Kausatzaileak bere entitate enplegatzailetik jasotako akzio edo partaidetzen gaineko aukerak herentziaz edo beste edozein oinordetza tituluren bidez eskuratzeko, baldin eta, haiek emateko unean, entitate hori sorrera berriko entitate berritzaile bada Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 89 ter artikuluko 1. apartatuan xedatutakoaren arabera, eta artikuluko horren 4. apartatuan aipatzen diren betekizunak betetzen baditu.

de los bienes transmitidos al pago de las liquidaciones que procedan, para el caso de incumplimiento del requisito al que se subordinaba el beneficio fiscal o para el caso de efectiva consolidación del dominio con arreglo a lo dispuesto en esta norma foral.

Artículo 12. Presunciones.

1. Se presumirá la existencia de una transmisión lucrativa cuando de los registros fiscales o de los datos que obren en la Administración, resultare la disminución del patrimonio de una persona y simultáneamente o con posterioridad, pero siempre dentro del plazo de prescripción del artículo 50, el incremento patrimonial correspondiente en el cónyuge o pareja de hecho, ascendientes, descendientes, personas herederas o legatarias.

2. En las adquisiciones a título oneroso realizadas por los ascendientes como representantes de los descendientes menores de edad, se presumirá la existencia de una transmisión lucrativa a favor de éstos por el valor de los bienes o derechos transmitidos, a menos que se pruebe la previa existencia de bienes o medios suficientes del menor para realizarla y su aplicación a este fin.

3. Las presunciones a que se refieren los apartados anteriores se pondrán en conocimiento de las personas interesadas para que puedan formular cuantas alegaciones y pruebas estimen convenientes a su derecho, antes de girar las liquidaciones correspondientes.

4. La adquisición de bienes o derechos por donación o cualquier otro negocio jurídico a título gratuito e «inter vivos» a favor de descendientes o adoptados, precedida de otra adquisición de los mismos bienes o derechos, realizada dentro de los últimos cuatro años inmediatamente anteriores a la citada adquisición, por donación o negocio jurídico a título gratuito e «inter vivos» a favor del ascendiente o adoptante y realizada por otro descendiente o adoptado del mismo, tributará teniendo en cuenta el parentesco de la primera donante con respecto a la última donataria, descontándose, en su caso, la cuota ingresada correspondiente a la primera donación.

Artículo 13. Exenciones.

Gozarán de exención en este impuesto:

a) Las transmisiones a título lucrativo del caserío y sus pertenecidos, otorgadas por los ascendientes a favor de sus descendientes, siempre que la finca estuviera destinada a su explotación agrícola, forestal o ganadera y que la persona transmitente la lleve a cabo de manera personal.

La exención estará condicionada a que, durante el plazo mínimo de 5 años, la persona adquirente se ocupe de manera personal de la explotación del caserío y sus pertenecidos.

b) Los sueldos y demás emolumentos que dejen devengados y no percibidos a su fallecimiento los funcionarios activos y pasivos, y los trabajadores.

c) La percepción de cantidades por las personas beneficiarias de contratos de seguros sobre la vida que traigan causa en actos de terrorismo, así como en servicios prestados en misiones internacionales humanitarias o de paz de carácter público. Esta exención será aplicable a todas las posibles personas beneficiarias.

d) Las adquisiciones por herencia o cualquier otro título sucesorio de opciones sobre acciones o participaciones que fueron recibidas por el causante de su entidad empleadora, siempre que, en el momento de su concesión, la misma tuviera la consideración de entidad innovadora de nueva creación en virtud de lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 89 ter de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y cumpliera los requisitos a que se refiere el apartado 4 del mismo.

III. TITULUA

ZERGADUNAK ETA ERANTZULEAK

14. artikulua. Zergadunak.

1. Honako hauek daude behartuta zerga ordaintzera, zergadun gisa:

a) «Mortis causa» eskurapenetan, kausadunak, eta aseguruaren heriotza kasua estaltzen duen bizitza asegurua jasozten den kasuetan, onuraduna.

b) Dohaintzetan eta «inter vivos» egiten diren kostu gabeko beste eskualdaketa parekagarrietan, dohaintza-hartzailea edo, bestela, haiengatik mesedetutakoa. Halakotzat hartuko da bizitza asegurua onuraduna, aseguratu bizirik dagoenean, edo banakako asegurua onuraduna, aseguratu hilda dagoenean eta kontratugilea ez denean.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko da alderdiek ezarritako estipulazioak edo testamentugileak agindutako xedapenak zeinahi direla ere.

15. artikulua. Egozpen araubidea.

Sozietate zibilek, jarauntsi jasogabeek, ondasun erkidegoek eta, nortasun juridikorik izan gabe, unitate ekonomiko bat edo ondare bereizi bat eratzen duten gainerako entitateek kostu gabe eskuratutako ondasunak eta eskubideak zergapegarriak direnean, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren arau edo itunen arabera egotziko zaizkie, hurrenez hurren, bazkideei, jaraunseei, erkideei eta partaideei.

Zerga Administrazioak ez badu jaso modu sinesgarrian arau edo itun horien berririk, zati berdinetan egotziko zaizkie.

16. artikulua. Erantzuleak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) erantzukizun solidarioari buruz ezartzen dituen arauak aplikagarriak direnean salbu, honako hauek izango dira zerga ordaintzaren erantzule subsidiarioak, emandako ondasunari dagokion kuotaren zatian:

a) Gordailuen, bermeen edo kontu korronteen «mortis causa» eskualdaketa eskudirua edo balore gordailuak entregatu dituzten edo eraturako bermeak itzuli dituzten finantza bitartekariak eta gainerako entitate, sozietate edo pertsonak.

Ondorio horietarako, helburu bakarra «mortis causa» eskualdaketa kargatzen duen oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga ordaintzea denean, ez da ulertuko eskudirua edo balore gordailuak entregatu direnik edo bermeak itzuli direnik.

b) Bizitza aseguruen polizetan hitzartutako kopuruak entregatzen dituzten aseguru etxeak.

Ondorio horietarako, diru kopuruak prestazioaren kontura ordaintzea ez da hartuko aseguru kontratuen kopuruaren entregatzean, haren helburu bakarra jasotako prestazioa zergapetzen duen oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga ordaintzea bada.

c) Jaraunsiaren parte diren balore tituluak eskualdatzean bitartekari direnak.

Ondorio horietarako, bitartekariak ez dira izango zergaren erantzuleak baldin eta, jaraunseen aginduz, behar diren baloreak saltzera mugatzen badira, eta horren helburu bakarra «mortis causa» eskualdaketa zergapetzen duen oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga ordaintzea bada.

17. artikulua. Erantzukizun subsidiarioa mugatzea eta azkentzea.

1. Aurreko artikuluan aipatu den erantzukizun subsidiarioa erantzukizun hori sorrarazten duten ondasunen eskurape-

TÍTULO III

CONTRIBUYENTES Y RESPONSABLES

Artículo 14. Contribuyentes.

1. Estarán obligados al pago del impuesto a título de contribuyentes:

a) En las adquisiciones «mortis causa», la persona causahabiente y la persona beneficiaria en los casos de percepción de seguros sobre la vida para caso de muerte de la persona asegurada.

b) En las donaciones y demás transmisiones lucrativas «inter vivos» equiparables, la persona donataria o la favorecida por ellas, considerándose como tal a la persona beneficiaria del seguro de vida para caso de supervivencia de la persona asegurada, o a la persona beneficiaria del seguro individual, en el caso de fallecimiento de la persona asegurada que sea distinta de la contratante.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior será aplicable cualesquiera que sean las estipulaciones establecidas por las partes o las disposiciones ordenadas por la persona testadora.

Artículo 15. Régimen de imputación.

Los bienes y derechos adquiridos a título lucrativo por las sociedades civiles, herencias yacentes, comunidades de bienes y demás entidades que, carentes de personalidad jurídica, constituyen una unidad económica o un patrimonio separado, susceptibles de imposición, se atribuirán a las personas socias, herederas, comuneras y partícipes, respectivamente, según las normas o pactos aplicables en cada caso.

En el supuesto de que éstos no constaran a la Administración tributaria en forma fehaciente, se atribuirán por partes iguales a las mismas.

Artículo 16. Responsables.

Serán subsidiariamente responsables del pago del impuesto, en la parte de la cuota que corresponda al bien entregado, salvo que resultaren de aplicación las normas sobre responsabilidad solidaria de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

a) Los intermediarios financieros y demás entidades, sociedades o personas que en las transmisiones «mortis causa» de depósitos, garantías o cuentas corrientes, hubieren entregado el metálico o valores depositados o devuelto las garantías constituidas.

A estos efectos, no se considerará entrega de metálico o de valores depositados, ni devolución de garantías el pago del propio impuesto que grave la transmisión «mortis causa».

b) Las compañías o entidades aseguradoras que entreguen las cantidades estipuladas en las pólizas de seguro sobre la vida.

A estos efectos, no se considerará entrega de cantidades de contratos de seguro, el pago a cuenta de la prestación que tenga como exclusivo fin el pago del propio impuesto que grave la percepción de dicha prestación.

c) Los mediadores en la transmisión de títulos valores que formen parte de la herencia.

A estos efectos, no se considerará que estos mediadores son responsables del tributo cuando se limiten a realizar, por orden de las personas herederas, la venta de los valores necesarios que tenga como exclusivo fin el pago del propio impuesto que grave la transmisión «mortis causa».

Artículo 17. Extensión y extinción de la responsabilidad subsidiaria.

1. La responsabilidad subsidiaria a que se refiere el artículo anterior estará limitada a la porción de impuesto que corres-

nari zergan dagokion zatira mugatuko da, eta zati hori ondasunen balio egiaztatuari batez besteko karga tasa aplikatzearen emaitza izango da.

Ondorio horietarako, batez besteko karga tasa eragiketa honen emaitza izango da: zerga kuota zati oinarri likidagarria bider 100. Batez besteko karga tasa bi hamartarrekin adieraziko da.

2. Autolikidazio partzialaren edo partzialen kasuan, ustezko erantzukizun subsidiarioaren muga haien zenbatekoa izango da, baldin eta aurreko apartatuan xedatutakotik ateratzen dena baino txikiagoa bada.

3. Autolikidazio partzialaren zenbatekoa ordaintzen bada, azkenduta geratuko da autolikidazio horretan jasotako ondasunak jarauntsi bidez eskualdatzeak dakarren zerga zorra ez ordaintzeagatik aurreko artikuluan aipatu diren entitate eta pertsonen izan lezaketen erantzukizun subsidiarioa.

IV. TITULUA

ZERGA OINARRIA

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

18. artikulua. Zerga oinarria.

1. Zerga honen zerga oinarri dira honako hauek:

a) «Mortis causa» eskualdaketa, kausadun bakoitzak banaka eskuratutakoaren balio garbia, hau da, ondasun eta eskubideen balio errealarik kengarriak diren kargak eta zorrak kenduta ateratzen dena.

b) Dohaintzetan eta «inter vivos» egiten diren kostu gabeko beste eskualdaketa parekagarrietan, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbia, hau da, ondasun eta eskubideen balio errealarik kengarriak diren kargak eta zorrak kenduta ateratzen dena.

c) Bizitza aseguruetatik datozen zenbatekoen kasuan, onuradunak jasotzen dituen kopuruak.

2. Oro har, zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren araubideari jarraituz zehaztuko da, eta salbuespen bakarrak foru arau honetan eta zerga oinarrien zeharkako zenbatespenaren arau erregulatuazaleetan ezarritakoak izango dira.

19. artikulua. Balorazio erregelak bereziak.

1. Eskualdatutako ondasun eta eskubideak beren balio erreala gatik baloratuko dira oro har, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat. Hala ere, horrek ez du eragotziko artikulua honen hurrengo apartatuetan eta 20. artikuluan ezarritako arau bereziak aplikatzea.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa ezarrita ere, jarraian aipatzen diren ondasun eta eskubideak honela baloratu ahal izango dira:

a) Hiri izaerako ondasun higiezin kasuan, aplikatuko dira urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuak, ondasun higiezin hiritarren balio katastrala eta balio egiaztatua zerga alorreko erregistro ofizialetan ageri diren balioak erreferentzia hartuta zehazteko prozedura onartzen duenak, ezartzen dituen arauak, eta, zehazki, II. tituluaren jasotakoak.

b) Merkatuko batez besteko prezioa Zerga Administrazioak aldi-aldi argitaratutako taula ofizialen bidez zehaztuta duten ondasunen kasuan, taula horiek aplikatuz.

c) Hipoteka, bahi eta antikresien kasuan, berrantolatutako kapitalaren edo obligazioaren zenbatekoagatik. Horren barruan sartuko dira interesengatik aseguratuak diren kopuruak (bost urtez gehienez), kalte-ordainak, ez-betetzeengatik ezartzen diren zeha-

ponda a la adquisición de los bienes que la originen, entendiéndose como tal el resultado de aplicar al valor comprobado de los bienes el tipo medio gravamen.

A estos efectos, el tipo medio de gravamen será el que resulte de dividir la cuota tributaria por la base liquidable, multiplicando el resultado por 100. El tipo medio se expresará incluyendo dos decimales.

2. El importe de la o de las autoliquidaciones parciales constituirá el límite de la posible responsabilidad subsidiaria, si fuese menor que el que resulte de aplicar lo dispuesto en el apartado anterior.

3. El ingreso del importe de la autoliquidación parcial extinguirá la responsabilidad subsidiaria que pudiera derivar, para las entidades y personas a que se refiere el artículo anterior, del impago de la deuda tributaria correspondiente a la transmisión hereditaria de los bienes incluidos en la autoliquidación parcial de que se trate.

TÍTULO IV

BASE IMPONIBLE

CAPÍTULO I. NORMAS GENERALES

Artículo 18. Base imponible.

1. Constituye la base imponible del impuesto:

a) En las transmisiones «mortis causa», el valor neto de la adquisición individual de cada causahabiente, entendiéndose como tal el valor real de los bienes y derechos minorado por las cargas y deudas que fueren deducibles.

b) En las donaciones y demás transmisiones lucrativas «inter vivos» equiparables, el valor neto de los bienes y derechos adquiridos, entendiéndose como tal el valor real de los bienes y derechos minorado por las cargas y deudas que fueren deducibles.

c) En las percepciones derivadas de los seguros sobre la vida, las cantidades percibidas por la persona beneficiaria.

2. Con carácter general la base imponible se determinará en régimen de estimación directa, sin más excepciones que las determinadas en esta norma foral y en las normas reguladoras del régimen de estimación indirecta de bases imponibles.

Artículo 19. Reglas especiales de valoración.

1. Los bienes y derechos transmitidos se valorarán, como regla general, por su valor real, de conformidad con lo establecido en el artículo anterior, sin perjuicio de las normas especiales establecidas en los apartados siguientes de este artículo y en el artículo 20.

2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, los bienes y derechos que se relacionan a continuación podrán valorarse por los valores que se indican:

a) Los bienes inmuebles de naturaleza urbana mediante la aplicación de las normas previstas en el Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, por el que se aprueba el procedimiento para la determinación del valor catastral y el valor comprobado a través del medio de estimación por referencia a los valores que figuren en los registros oficiales de carácter fiscal, de los bienes inmuebles de naturaleza urbana, y en particular en su título II.

b) Los bienes respecto de cuyos precios medios de mercado se aprueben periódicamente tablas oficiales por la Administración tributaria, por el resultado de la aplicación de las mismas.

c) Las hipotecas, prendas y anticresis, en el importe de la obligación o capital garantizado, comprendiendo las sumas que se aseguren por intereses, con un máximo de cinco años, indemnizaciones, penas por incumplimiento u otro concepto análogo.

penak eta antzeko kontzeptuak. Bermaturiko kopurua ez bada ageri berariaz adierazita, kapitala eta hiru urteko interesak hartuko dira oinarritzat.

d) Aurreko letran edo hurrengo artikuluan aipatzen ez diren gainerako eskubide errealen kasuan, horiek egotziko dira alderdiek haiek eratzean hitzartutako kapital, prezio edo balio-gatik, baldin eta kopuru hori urteko errenta edo pentsioa diruaren legezko interesaren arabera kapitalizatuz ateratzen denaren berdina edo handiagoa bada; aldis, kopuru hori txikiagoa bada, azken honen arabera egotziko dira.

e) Pentsioak diruaren legezko interesaren arabera kapitalizatuz baloratuko dira, ateratzen den kapitaletik honako hau hartuz: 21. artikuluan gozamenak baloratzeko ezartzen dituen erregelak aplikatuta, pentsiodunaren adinari dagokion zatia, pentsioa biziartekoa denean, edo, pentsioaren iraupenari dagokiona, pentsioa aldi baterakoa denean.

Pentsioaren zenbatekoa ez bada zenbatzen diru-unitatetan, lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa diruaren legezko interesaren arabera kapitalizatuz kalkulatu da zerga oinarria.

Letra honetan ezarritakoaren ondorioetarako, urteko bati dagokion kopurua kapitalizatuko da.

f) Bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatzen diren baloreen eskualdaketetan, zerga oinarritzat hartu ahal izango da balore horiek eskuratzen diren eguneko kotizaziotik ateratzen den balio efektiboa, edo, bestela, baloreok aurreko hiru hilabetearen barruan negoziatu diren azken eguneko kotizazioaren arabera ateratzen dena.

g) Beren tituluak bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatzen ez dituzten entitateen kapital sozialeko partaidetzen eskualdaketetan, zerga oinarria eskualdatutako partaidetzei eskualdaketa egin aurretik itxitako azken ekitaldiko balantzean dagokien ondare garbiaren balioetik aterako da.

h) Beste edozein balore negoziagarriaren eskualdaketetan, zerga oinarria balio nominala izango da.

i) Mailegu-hartzailearen berme pertsonala besterik ez duten maileguetan, fidantza bidez aseguratutakoetan, zorrak onartzeko kontratuetan eta ordaindutako gordailuen kontratuetan, zerga oinarria betebeharraren kapitala edo gordailutako gauzaren balioa izango da.

Kreditu kontuetan, mailegu-hartzaileak benetan erabili duen kopurua izango da zerga oinarria.

Bahiz, hipotekaz edo antikresiz bermatutako maileguetan, apartatu honetako c) letran xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Aurreko apartatuan aipatu diren erregelak aplikatzeak -b) letran jasotakoak alde batera utzita-, ez dio eragotziko Zerga Administrazioari beste balio erreal bat zehaztea 38. artikuluan balioak egiaztatzeke zerrendatzen diren bitartekoak erabilita, baldin eta irizten badu haien aplikaziotik ateratzen diren balioak ez datozela bat ondasun edo eskubide bakoitzaren balio errealekin; hala gertatuz gero, zirkunstantzia hori frogatu beharko da.

Alabaina, zerga honen autolikidazioa egitean zergadunak zintzo errespetatu baditu aurreko 2. apartatuko erregelen aplikaziotik ateratzen diren balioak, zergadun horri ezin izango zaio zerga zehapenik jarri Zerga Administrazioak balio horiek egiaztatzearen ondorioz zerga kuotan ager daitekeen diferentziagatik.

20. artikulua. Emakidak eta lege balorazioa duten beste ondasun batzuk baloratzea.

1. Jabari edo titulartasun publikoko zerbitzu edo ondasunak ustiatzeko egiten diren emakida administratiboak, iraupena

Si no constare expresamente el importe de la cantidad garantizada, se tomará por base el capital y tres años de intereses.

d) Los demás derechos reales no incluidos en la letra anterior ni en el artículo siguiente, se imputarán por el capital, precio o valor que las partes hubiesen pactado al constituirlos, si fuese igual o mayor que el que resulte de la capitalización al interés legal del dinero de la renta o pensión anual, o éste si aquél fuese menor.

e) Las pensiones, capitalizándolas al interés legal del dinero y tomando del capital resultante aquella parte que, según las reglas establecidas para valorar los usufructos en el artículo 21, corresponda a la edad de la persona pensionista, si la pensión es vitalicia, o a la duración de la pensión, si ésta es temporal.

Cuando el importe de la pensión no se cuantifique en unidades monetarias, la base imponible se obtendrá capitalizando el importe del salario mínimo interprofesional al interés legal del dinero.

A los efectos de lo previsto en esta letra se capitalizará la cantidad que corresponda a una anualidad.

f) En las transmisiones de valores que se negocien en un mercado secundario oficial, podrá servir de base imponible el valor efectivo de los mismos que resulte de la cotización del día en que tenga lugar la adquisición o, en su defecto, la del primer día inmediato anterior en que se hubiesen negociado, dentro del trimestre inmediato precedente.

g) En las transmisiones de participaciones en el capital social de entidades cuyos títulos no se negocien en un mercado secundario oficial, la base imponible será la que se derive del valor del patrimonio neto que corresponda a las participaciones transmitidas resultante del balance correspondiente al último ejercicio cerrado con anterioridad a la fecha de realización de la transmisión.

h) En las transmisiones de cualquier otro valor negociable, la base imponible estará constituida por su valor nominal.

i) En los préstamos sin otra garantía que la personal de la prestataria, en los asegurados con fianza y en los contratos de reconocimiento de deudas y de depósito retribuido, constituirá la base imponible el capital de la obligación o el valor de la cosa depositada.

En las cuentas de crédito, el que realmente hubiese utilizado la prestataria.

En los préstamos garantizados con prenda, hipoteca o anticresis, se observará lo dispuesto en la letra c) de este apartado.

3. La aplicación de las reglas del apartado anterior, salvo las contenidas en la letra b), no impedirá la determinación de un valor real diferente por parte de la Administración tributaria, utilizando para ello los medios de comprobación de valores a que se refiere el artículo 38, cuando se estime que los valores resultantes de dicha aplicación no se corresponden con el valor real del bien o derecho en el caso concreto, justificando debidamente este extremo.

No obstante, si el contribuyente se ha ajustado en su autoliquidación por este impuesto a los valores derivados de la aplicación de las reglas contenidas en el apartado 2 anterior, no se podrán imponer sanciones tributarias por la diferencia de cuota tributaria que resulte de la comprobación de valores realizada, en su caso, por la Administración tributaria.

Artículo 20. Valoración de concesiones y de otros bienes con valoración legal.

1. Las concesiones administrativas para la explotación de servicios o bienes de dominio o titularidad pública, cualquiera

edozein dutela ere, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan jasotako irizpideen arabera baloratuko dira.

2. Gehieneko besterentze balioa tasatua duten babes publikoko edo antzeko administrazio kategorietako etxebizitzak baloratzeko, zerga oinarriak ezingo du gainditu etxebizitza horiei babes publikoko edo antzeko administrazio kategorietako etxebizitzaren legeria aplikatuta dagokien gehieneko prezioa.

3. Konkurtsoko epailearen ebazpenetan ondasun eta eskubide eskualdatuetarako finkatutako balioa balio errealtzat hartuko da, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango balio egiazta-penak egitea ondasun eta eskubideen eskualdaketatik.

21. artikulua. Gozamena eta beste instituzio batzuk.

Gozamen eskubidearen eraketa zergapetzeko, hurrengo letrako arauak aplikatuko dira:

a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balio osoarekiko proportzionala dela joko da, hots, 100eko 2a urtebeteko, 100eko 70a gainditu gabe. Urtea baino laburragoak diren denbora tarteak ez dira konputatuko, eta urtebetetik beherako gozamenen kasuan ondasunen balioaren 100eko 2a konputatuko da.

Biziarteko gozamenetan, haien balioa ondasunen balio osoaren 100eko 70 izango da gozamenaren hogen urte baino gutxiago dituenetan. Alabaina, adina aurrera joan ahala, balioa 100eko 1eko proportzioan gutxituko da urte bakoitzeko, eta balio osoaren 100eko 10 izango da gutxieneko muga.

Jabetza soileko eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko diferentzia izango da.

Aldi baterakoak ere badiren biziarteko gozamenetan, berriz, jabetza soilak baloratuko da aurreko erregeletatik baliorik txikiena esleitzen diona aplikatuta.

Gozamena pertsona juridiko baten alde eratu bada, pertsona fisiko bati egotzitako jabetza soilak zer balio duen zehazteko letra honetako erregelak aplikatuko dira, baina, gozamenaren, ezingo da inoiz konputatu ondasunei egotzitako balioaren 100eko 60 baino gehiago. Portzentaje hori bera hartuko da kontuan gozamenak iraupen mugagabea duenean.

b) Erabiltzeko eta biztantzeko eskubide errealeen balioa kalkulatzeko da eskubideok eratzen dituzten ondasunen balioaren 100eko 75ari aldi baterako edo biziarteko gozamenak (kasuan kasukoak) baloratzeko erregelak aplikatuta.

II. KAPITULUA. «MORTIS CAUSA» ESKURAPENETARAKO ARAU BEREZIAK

22. artikulua. Jarauntsiko ondasunen zehaztapena.

1. Kausadun bakoitzaren banakako partaidetza zehazteko, presuntzio egingo da kausatzailearen jarauntsiko ondasunen artean sartzen direla 23. artikuluan eta haren hurrengoetan ezarritako presuntzioen ondorioz gehitzen diren ondasunak, salbu eta presuntzio horien arabera ondasun horiek pertsona jakin batzuen zerga oinarriari egotzi behar zaizkionean.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko kausadun banakako partaidetza zehazteko, baldin eta testamentugileak ondasun jakin batzuk egotzi badizkie kausadun horiei, jarauntsiko ondasunetatik beste batzuk kanpoan utzita. Testamentugileak ondasun jakin batzuk eta gainerako jarauntsi masaren partaidetza bat egotzi badizkie, gehitutako ondasunetan proportzionalki dagokien zatia konputatuko zaie, gainerako jarauntsi masan duten partaidetzaren arabera.

que sea su duración, se valorarán con arreglo a los criterios señalados en el impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados.

2. A efectos de la valoración de las viviendas de protección pública o categorías administrativas asimiladas cuyo valor máximo de enajenación se encuentre tasado, la base imponible del impuesto no podrá ser superior al precio máximo que corresponda a dichas viviendas en aplicación de la legislación de viviendas de protección pública o categorías administrativas asimiladas.

3. Se considerará que el valor fijado en las resoluciones del juez o de la jueza del concurso para los bienes y derechos transmitidos corresponde a su valor real, no procediendo en consecuencia comprobación de valores en las transmisiones de bienes y derechos.

Artículo 21. Usufructo y otras instituciones.

A la tributación de la constitución del derecho de usufructo serán de aplicación las normas contenidas en las letras siguientes:

a) El valor del usufructo temporal se reputará proporcional al valor total de los bienes en razón del 2 por 100 por cada período de un año, sin exceder del 70 por 100, no computándose las fracciones de tiempo inferiores al año, si bien el usufructo por tiempo inferior a un año se computará en el 2 por 100 del valor de los bienes.

En los usufructos vitalicios se estimará que el valor es igual al 70 por 100 del valor total de los bienes cuando la persona usufructuaria cuente menos de veinte años, minorando a medida que aumente la edad, en la proporción de un 1 por 100 menos por cada año más, con el límite mínimo del 10 por 100 del valor total.

El valor del derecho de nuda propiedad se computará por la diferencia entre el valor del usufructo y el valor total de los bienes.

En los usufructos vitalicios que, a su vez, sean temporales, la nuda propiedad se valorará aplicando, de las reglas anteriores, aquella que le atribuya menor valor.

Cuando el usufructo se hubiese constituido a favor de una persona jurídica, para determinar el valor de la nuda propiedad atribuida a una persona física, se aplicarán las mismas reglas de la presente letra, sin que, en ningún caso, pueda computarse para el usufructo un valor superior al 60 por 100 del total atribuido a los bienes. Este mismo porcentaje se tendrá en cuenta cuando la duración del usufructo sea indeterminada.

b) El valor de los derechos reales de uso y habitación será el que resulte de aplicar al 75 por 100 del valor de los bienes sobre los que fueron impuestos, las reglas correspondientes a la valoración de los usufructos temporales o vitalicios, según los casos.

CAPÍTULO II. NORMAS ESPECIALES PARA ADQUISICIONES «MORTIS CAUSA»

Artículo 22. Determinación del caudal hereditario.

1. A efectos de determinar la participación individual de cada causahabiente, se presumirá que forma parte del caudal hereditario de la persona causante los bienes que resulten adicionados por el juego de las presunciones establecidas en el artículo 23 y siguientes, salvo que con arreglo a las mismas deban ser imputados en la base imponible de personas determinadas.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior no se aplicará para determinar la participación individual de aquellas personas causahabientes a quienes el testador hubiese atribuido bienes determinados con exclusión de cualesquiera otros del caudal hereditario. En el caso de que les atribuyera bienes determinados y una participación en el resto de la masa hereditaria, se les computará la parte de bienes adicionados que proporcionalmente les corresponda, según su participación en el resto de la masa hereditaria.

3. Legatuen kasuan, testamentuko xedapenak agintzen badu entregak zergarik gabea izan behar duela edo haien ordainketara jarauntsiaren kontura joango dela, zergaren zenbatekoak ez du handituko legatadunaren kargura egingo den autoliquidazioaren zerga oinarria; hala ere, zenbateko hori ez da inoiz ere kengarria izango beste kausadunen zerga oinarria zehazteko.

4. Interesdunek errefusatzan badute jarauntsiko ondasun multzoari ondasun eta eskubideak gehitzea artikuluko honetan ezarritako presuntzioen indarrez, haien balioa zerga oinarritik kanpo utziko da, sortutako auzia bide ekonomiko-administrati-boan behin betiko ebatzi arte.

Orobat, behar den kasuetan, aplikagarriak izango dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) eta Ondarearen gaineko Zergaren Foru Arauak (ekainaren 11ko 2/2018 Foru Araua) titulartasunari edo kotitulartasunari buruz ezarritako presuntzioak.

23. artikulua. *Hil aurreko urtean kausatzailearenak izateagatik gehitu daitezkeen ondasunak.*

Testamentu-ahalordeaz baliatuta egiten diren eskurapenetan, aurreko lehen paragrafoan aipatu den 5 urteko epea ahalordea baliatzen den unetik aurrera zenbatuko da.

Aurreko paragrafoetan aipatutako entitateetako partaidetzak eta horien gaineko gozamen eskubideak eskuratzen direnean, murriztapena kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer proportzio gordetzen duen jarduera ekonomikoa garatzeko beharrezkoak diren aktiboen balioak –jardueratik eratorritako zorren zenbatekoarekin gutxituta– entitatearen ondare garbiaren balioarekiko; behar den kasuetan, erregela horiek berdin aplikatuko dira partaidetutako entitateen partaidetzen balorazioan ere, haien entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazteko. Aktibo bat jarduera ekonomikoa bat garatzeko beharrezkoa den ala ez erabakitzeko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 6. artikuluko laugarren apartatuan xedatutakoari jarraituko zaio.

Apartatu honetako lehen hiru paragrafoetan aipatutako eskurapenari eusteko baldintza ez bada betetzen, ordaindu behar dira bai murriztapenagatik zergan ordaindu ez den zatia bai sortutako berandutze interesak.

Apartatu honetan jasotako murriztapena aplikatzeko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean ezarritako beharkizunak oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena gertatzen den unean bete beharko dira. Zehazki, 6. artikuluaen bigarren apartatuko d) letran aipatzen den baldintza bete beharko da kausatzailearen edo, hala bada, goki, bigarren apartatu horretako c) letran aipatutako ahaide-tasun taldeko pertsonaren edo pertsonen errenta zergaren autolikidazioan, eta, betiere, zergaldi hauetako bat autolikidatzen denean:

a) Oro har, kausatzailearen heriotzako zergaldia.

b) Eskualdaketa zergaldia, baldin eta eskurapenak kausatzailea oraindik bizirik dela egiten badira, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen ondorioz.

4. Ezkontideak edo izatezko bikotekideak, aurreko ahaideek edo adoptatzaileek, edo ondorengo ahaideek edo adoptatuek «inter vivos» eskuratzen badituzte banakako enpresa bat, negozio profesional bat edo entitateetako partaidetzak, eta eskurapenari aplikagarri bazaio Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean araututako salbuespena, 100eko 95eko murriztapena izango du zergaren zerga oinarrian, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Dohaintza-emaiak hirurogei urte edo gehiago edukitzea, edo ezintasun iraunkorreko egoeran egotea, dela gradu absolutuan dela baliaezintasun handikoan.

uno a seis del artículo 6 de la Norma Foral 2/2018, de 11 de junio, del Impuesto sobre el Patrimonio, por el cónyuge o pareja de hecho, ascendientes o adoptantes, descendientes o personas adoptadas o colaterales hasta el tercer grado de la persona fallecida, gozarán de una reducción del 95 por 100 en la base imponible del impuesto, siempre que la adquisición se mantuviera durante los 5 años siguientes al fallecimiento de la persona causante, salvo que falleciese la persona adquirente dentro de ese plazo o que se liquidara la empresa o entidad como consecuencia de un procedimiento concursal.

En las adquisiciones producidas en vida de la persona causante como consecuencia de pactos sucesorios con eficacia de presente, el plazo de 5 años, a que se refiere el párrafo anterior, se contará a partir del momento en que tenga lugar la transmisión.

En las adquisiciones a través del ejercicio del poder testatorio, el plazo de 5 años a que se refiere el párrafo primero anterior, se contará a partir del momento en que tenga lugar el ejercicio del poder.

En las adquisiciones de participaciones en entidades y derechos de usufructo sobre las mismas a que se refieren los párrafos anteriores, la reducción se calculará teniendo en cuenta la proporción existente entre el valor de los activos necesarios para el desarrollo de la actividad económica, minorado en el importe de las deudas derivadas de la misma, y el valor del patrimonio neto de la entidad, aplicándose, en su caso, estas mismas reglas en la valoración de las participaciones de entidades participadas para determinar el valor de las de su entidad tenedora. A efectos de considerar si un activo es necesario para el desarrollo de una actividad económica, se estará a lo dispuesto en el apartado cuatro del artículo 6 de la Norma Foral 2/2018, de 11 de junio, del Impuesto sobre el Patrimonio.

En el caso de no cumplirse el requisito de permanencia al que se refieren los tres primeros párrafos de este apartado, se deberá pagar la parte del impuesto que se hubiera dejado de ingresar como consecuencia de la reducción practicada y los intereses de demora correspondientes.

A efectos de la aplicación de la reducción recogida en este apartado, el cumplimiento de los requisitos y condiciones previstos en los apartados uno a seis del artículo 6 de la Norma Foral 2/2018, de 11 de junio, del Impuesto sobre el Patrimonio, habrá de referirse al momento en el que se produzca el devengo del impuesto sobre sucesiones y donaciones. En particular, el cumplimiento de la condición prevista en la letra d) del apartado dos de dicho artículo 6 deberá referirse a la autoliquidación del impuesto sobre la renta de las personas físicas de la persona causante o, en su caso, de la persona o personas del grupo de parentesco a que se refiere la letra c) del citado apartado dos, correspondiente en cualquier caso al período impositivo que corresponda de los siguientes:

a) Con carácter general, el de fallecimiento de la persona causante.

b) El de la transmisión, en el caso de adquisiciones producidas en vida de la persona causante como consecuencia de pactos sucesorios con eficacia de presente.

4. Las adquisiciones «inter-vivos» de una empresa individual, de un negocio profesional o de participaciones en entidades, a los que sea de aplicación la exención regulada en los apartados uno a seis del artículo 6 de la Norma Foral 2/2018, de 11 de junio, del Impuesto sobre el Patrimonio, por el cónyuge o pareja de hecho, ascendientes o adoptantes, descendientes o personas adoptadas, gozarán de una reducción del 95 por 100 en la base imponible del impuesto, siempre que concurren las condiciones siguientes:

a) Que la persona donante tenga sesenta o más años o se encuentre en situación de incapacidad permanente, en grado de absoluta o gran invalidez.

b) Dohaintza-emailea zuzendaritza lanak egiten ari bada, eskualdaketaren etik beretik lan horiek egiteari uztea eta ordainsari gehiagorik ez jasotzea.

Ondorio horietarako, sozietatearen administrazio kontseiluko kide izate hutsa ez da zuzendaritza funtzioen barruan sartuko.

c) Dohaintza-hartzaileari dagokionez, ezinbestekoa da dohaintzaren eskritura publikoa egin ondorengo 5 urteetan bere eskuetan mantentzea eskuratutakoa, eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean araututako salbuespenerako eskubidea izatea, salbu eta epe horretan hiltzen denean edo enpresa edo entitatea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen denean. Halaber, dohaintza-hartzaileak ezin izango du egin erabilpen egintzarik edo sozietate eragiketarik, zuzenean edo zeharka eskurapenaren balioa nabarmen murriztu dezaketenean.

Entitateetako partaidetzen eskurapenetan, murriztapena kalkulatu da kontuan hartuta zer proportzio gordetzen duen jardura ekonomikoa garatzeko beharrezkoak diren aktiboen balioak -jardueratik eratorritako zorren zenbatekoarekin gutxituta- entitatearen ondare garbiaren balioarekiko; behar den kasuetan, erregela horiek berdin aplikatuko dira partaidetutako entitateen partaidetzen balorazioan ere, haien entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazteko. Aktibo bat jardura ekonomikoa bat garatzeko beharrezkoa den ala ez erabakitzeke, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 6. artikuluko laugarren apartatuan xedatutakoari jarraituko zaio.

Apartatu honetan jasotako murriztapena aplikatzeko, dohaintza-emaileak oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena gertatzen denean bete behar ditu Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitarteko apartatuetan ezarritako beharkizunak. Dena den, 6. artikulua 2. apartatuko d) letrako baldintza betetzen den zehazteko, dohaintza-emaileak edo, hala badagokio, 2. apartatu horretako c) letran aipatutako ahaidetasun taldeko pertsonak edo pertsonak eskualdaketaren aurreko lehen zergaldian errenta zergagatik aurkeztutako autoliquidazioari erreparatuko zaio.

Apartatu honetan aipatzen diren baldintzak betetzen ez bada, ordaindu beharko dira murriztapenagatik zergan ordaindu ez den zatia gehi bidezkoak diren berandutze-interesak.

45. artikulua. *Ohiko etxebizitzarekin lotutako murriztapenak.*

1. Zerga oinarriaren 100eko 95eko murriztapena izango du, gehienez 220.000 euroraino, eskualdaketaren aurreko lehen bi urteetan eskualdatzailearekin bizi izandako etxebizitzaren jabari osoa, gozamina, jabetza soila, azalera eskubidea edo erabilera eta biztantzze eskubidea kosturik gabe «inter vivos» edo «mortis causa» eskuratzeak.

Elkarrekin bizi izanaren beharkizuna frogatzeko, erroldatze agiria eta epe horretan elkarrekin etetik gabe bizi izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dira, betiere zuzenbidean onartutako beste edozein frogabide erabiltzea eragotzi gabe.

2. Aurreko 1. apartatuan jarritako beharkizun kuantitativoa gainditzen denean, murriztapena apartatu horretan finkatutako kopururaino bakarrik aplikatuko da, eta, beraz, muga horretatik gorako kopuruek ez dute murriztapenik izango.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, murriztapena aplikatzeko beharkizuna izango da dena delako etxe-

b) Que, si la persona donante viniere ejerciendo funciones de dirección, dejará de ejercer y de percibir remuneraciones por el ejercicio de dichas funciones desde el momento de la transmisión.

A estos efectos, no se entenderá comprendida entre las funciones de dirección la mera pertenencia al consejo de administración de la sociedad.

c) En cuanto a la persona donataria, deberá mantener lo adquirido y tener derecho a la exención regulada en los apartados uno a seis del artículo 6 de la Norma Foral 2/2018, de 11 de junio, del Impuesto sobre el Patrimonio, durante los 5 años siguientes a la fecha de la escritura pública de donación, salvo que fallezca dentro de este plazo o que la empresa o entidad se liquide como consecuencia de un procedimiento concursal. Asimismo, la persona donataria no podrá realizar actos de disposición y operaciones societarias que, directa o indirectamente, puedan dar lugar a una minoración sustancial del valor de la adquisición.

En las adquisiciones de participaciones en entidades, la reducción se calculará teniendo en cuenta la proporción existente entre el valor de los activos necesarios para el desarrollo de la actividad económica, minorado en el importe de las deudas derivadas de la misma, y el valor del patrimonio neto de la entidad, aplicándose, en su caso, estas mismas reglas en la valoración de las participaciones de entidades participadas para determinar el valor de las de su entidad tenedora. A efectos de considerar si un activo es necesario para el desarrollo de una actividad económica, se estará a lo dispuesto en el apartado cuatro del artículo 6 de la Norma Foral 2/2018, de 11 de junio, del Impuesto sobre el Patrimonio.

A efectos de la aplicación de la reducción recogida en este apartado, el cumplimiento de los requisitos y condiciones previstos en los apartados uno a seis del artículo 6 de la Norma Foral 2/2018, de 11 de junio, del Impuesto sobre el Patrimonio por parte de la persona donante, habrá de referirse al momento en el que se produzca el devengo del impuesto sobre sucesiones y donaciones. No obstante, el cumplimiento de la condición prevista en la letra d) del apartado dos de dicho artículo 6, deberá referirse a la autoliquidación del impuesto sobre la renta de las personas físicas de la persona donante o, en su caso, de la persona o personas del grupo de parentesco a que se refiere la letra c) del citado apartado dos, correspondiente al periodo impositivo inmediato anterior al de la transmisión.

En el caso de no cumplirse los requisitos a que se refiere el presente apartado, deberá pagarse la parte del impuesto que se hubiere dejado de ingresar como consecuencia de la reducción practicada y los intereses de demora correspondientes.

Artículo 45. *Reducciones relacionadas con la vivienda habitual.*

1. La adquisición lucrativa «inter vivos» o «mortis causa» del pleno dominio, del usufructo, la nuda propiedad, del derecho de superficie, o del derecho de uso y habitación de la vivienda en la que la persona adquirente hubiese convivido con la persona transmitente durante los dos años inmediatamente anteriores a la transmisión, gozará de una reducción del 95 por 100 en la base imponible del impuesto con el límite máximo de 220.000 euros.

El requisito de convivencia quedará acreditado mediante certificación de empadronamiento y certificación de convivencia de manera ininterrumpida durante ese periodo, sin perjuicio de la posible acreditación por cualquier otro medio de prueba admitido en derecho.

2. Cuando se supere el requisito cuantitativo establecido en el apartado 1 anterior, la reducción sólo operará hasta la cuantía establecida en el mismo, no gozando de reducción las cantidades que superen ese límite.

3. A los efectos de lo dispuesto en el presente artículo, será requisito para la aplicación de la reducción que la vivienda

bitzita ohikotzat hartu izana, bai eskualdatzailearentzat eta bai eskuratzzailearentzat, gutxienez kontuan hartzen den denbora tartean. Horretarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, eta haren erregelamenduzko garapenak jarritako beharkizunak betetzen dituen.

VI. TITULUA

ZERGA ZORRA

46. artikulua. Autoliquidazio erregelak.

1. «Mortis causa» edo doan «inter vivos» egindako eskurapenak zergapetzean, kontuan hartuko da zer ahaidetasun edo harreman maila dagoen kausatzaile edo dohaintza emailearen eta kausadun edo dohaintza hartzailearen artean.

Kausadunak ez badira ezagunak, autoliquidatuko da arrotzen arteko oinordetzari dagokion tarifa, behin haiek ezagunak direnean bidezkoa den itzulketa eragotzi gabe.

2. Bizitza aseguruak direla-eta jasotako kopuruak autoliquidatzeko, aplikaziozkoa izango da jarauntsiko masa osatzen duten ondasun eta eskubideak bereizita gertatzen den heriotzak eragindako eskualdaketak arautzen dituen tarifa bera.

Bizitza aseguruak zergapetzean, kontuan hartuko da zer ahaidetasun maila dagoen kontratatzailearen edo aseguru hartzailearen eta onuradunaren artean.

Aseguru kolektiboetan edo enpresek beren langileen alde kontratatutako aseguruetan, kontuan hartuko da zer ahaidetasun maila dagoen aseguratuaren eta onuradunaren artean.

47. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren kuota osoa lortzeko, V. tituluan jasotakoaren arabera kalkulaturako oinarri likidagarriari tasa edo tarifa hauek aplikatuko zaizkio, 44. artikuluan 1. apartatuan finkatutako ahaidetasun mailaren taldeen arabera:

- a) I. taldea: 100eko 1,5eko zerga tasa aplikatuko da.
- b) II. eta III. taldeei, tarifa hauek aplikatuko zaizkie:

de que se trate haya tenido la consideración de vivienda habitual tanto para la persona transmitente como para la adquirente, al menos, durante el período de tiempo considerado, entendiéndose por vivienda habitual la que cumpla los requisitos establecidos en la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en su desarrollo reglamentario.

TÍTULO VI

DEUDA TRIBUTARIA

Artículo 46. Reglas de autoliquidación.

1. Las adquisiciones «mortis causa» o a título gratuito «inter vivos» tributarán con arreglo al grado de parentesco o relación que medie entre la persona causante o donante y la causahabiente o donataria.

Si no fueren conocidas las personas causahabientes se autoliquidará por la tarifa correspondiente a la sucesión entre extraños, sin perjuicio de la devolución que proceda una vez que aquéllas fueren conocidas.

2. Las cantidades percibidas por razón de los seguros sobre la vida se autoliquidarán aplicando la misma tarifa que rija para las transmisiones por causa de muerte con separación de los bienes y derechos que integran la masa hereditaria.

Los seguros sobre la vida tributarán por el grado de parentesco entre la persona contratante o tomadora del seguro y la beneficiaria.

En los seguros colectivos o contratados por las empresas en favor de sus personas empleadas se estará al grado de parentesco entre la persona asegurada y la beneficiaria.

Artículo 47. Cuota íntegra.

La cuota íntegra del impuesto se obtendrá aplicando a la base liquidable, calculada según lo dispuesto en el título V, los siguientes tipos o tarifas en función de los grupos de grado de parentesco establecidos en el apartado 1 del artículo 44:

- a) Grupo I: Será de aplicación el tipo impositivo del 1,5 por 100.
- b) A los grupos II y III les serán de aplicación las siguientes tarifas:

II. TARIFA / TARIFA II

II. TALDEA / GRUPO II

Oinarri likidagarria, gehienez Base liquidable hasta Euroak / Euros	Kuota osoa Cuota íntegra Euroak / Euros	Oinarriaren gainerakoa, gehienez Resto base hasta Euroak / Euros	Tasa marginala Tipo marginal %
0	0,00	8.200	5,70
8.200	467,40	16.390	7,98
24.590	1.775,32	16.390	10,26
40.980	3.456,94	40.990	12,54
81.970	8.597,08	81.970	15,58
163.940	21.368,01	245.990	19,38
409.930	69.040,87	409.740	23,18
819.670	164.018,60	1.229.460	28,50
2.049.130	514.414,70	Soberakina / Exceso	34,58

III. TARIFA / TARIFA III

III. TALDEA / GRUPO III

Oinarri likidagarria, gehienez Base liquidable hasta Euroak / Euros	Kuota osoa Cuota íntegra Euroak / Euros	Oinarriaren gainerakoa, gehienez Resto base hasta Euroak / Euros	Tasa marginala Tipo marginal %
0	0,00	8.200	5,70
8.200	724,20	67.410	60,73
23.910	2.475,60	67.410	64,78
30.180	3.701,29	30.110	67,52
86.150	66.372,58	86.150	20,92
674.130	28.284,02	239.110	29,08
301.140	81.155,46	301.530	21,73
861.750	266.323,29	6.221.370	49,52
2.031.640	790.985,47	Soberakina / Exceso	32,97

48. artikulua. Nazioarteko zergapetze bikoitzaren kenkaria.

Zerga honen kuota osotik, bi kopuru hauetako txikiaren kenkaria egingo da:

a) Antzeko karga dela-eta atzerrian ordaindutakoaren zenbateko efektiboa, zerga honetan kargatutako ondare gehikuntzari eragiten diona.

b) Zerga honen batez besteko karga tasa Espainiatik kanpo kokatuta dauden ondasunei edo handik kanpo erabili daitezkeen eskubideei aplikatzearen emaitza, haiek atzerrian antzeko zerga batean kargatuta egon direnean.

Aurreko paragrafoan aipatutako batez besteko karga tasa 17. artikuluan jasotako moduan kalkulatu da.

VII. TITULUA

SORTZAPENA ETA PRESKRIPZIOA

49. artikulua. Sortzapena.

1. «Mortis causa» moduko eskurapenetan eta bizitza aseguruetan, zerga sortuko da kausatzaile edo aseguratuaren heriotzaren egunean sortuko da, edo, bestela, absentearen heriotzaren deklarazioak irimotasuna hartzen duenean, Kode Zibilak 196. artikuluan jasotakoaren arabera.

Testamentu ahalorde bidez gauzatzen diren jarauntsietan, zerga sortuko da ahalordea modu ezeztazinez erabiltzen denean edo ahalordea azkentzeko arrazoiak bat gertatzen denean.

Oinordetza itunek unean bertan dutenean eraginkortasuna edo jarauntsiari uko egiteko oinordetza tituluak direnean -5. artikuluan aipatuak-, izendatzailea bizirik dagoela gertatuko da zergaren sortzapena, eskualdaketa egiten den unean.

Mortis causa eskurapenetan, kausatzaileak transmisarioa duenean zuzeneko oinordekoa Kode Zibilaren 1006. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eskualdatzailearen heriotza egunean sortuko da zerga.

2. Kosturik gabe egindako «inter vivos» moduko eskurapenetan, zerga kontratua kausatu edo egiten den egunean sortuko da.

Ondasun eta eskubideen eskurapenak doan egindako «inter vivos» moduko negozio juridikotzat hartzen badira 5. artikuluan ezarritako salbuespenekin bat, eskurapen horietan eskualdaketa egiten den egunean sortuko da zerga.

Artículo 48. Dedución por doble imposición internacional.

De la cuota íntegra de este impuesto se deducirá la menor de las dos cantidades siguientes:

a) El importe efectivo de lo satisfecho en el extranjero por razón de gravamen similar que afecte al incremento patrimonial sometido a este impuesto.

b) El resultado de aplicar el tipo medio de gravamen de este impuesto al incremento patrimonial correspondiente a bienes que radiquen o derechos que puedan ser ejercitados fuera de España, cuando hubiesen sido sometidos a gravamen en el extranjero por un impuesto similar.

El tipo medio de gravamen a que se refiere el párrafo anterior se calculará en la forma establecida en el artículo 17.

TÍTULO VII

DEVENGO Y PRESCRIPCIÓN

Artículo 49. Devengo.

1. En las adquisiciones «mortis causa» y en los seguros sobre la vida, el impuesto se devengará el día del fallecimiento de la persona causante o de la asegurada o cuando adquiera firmeza la declaración de fallecimiento de la persona ausente, conforme al artículo 196 del Código Civil.

En las herencias que se defieran por poder testatorio, el impuesto se devengará cuando se haga uso del poder con carácter irrevocable o se produzca alguna de las causas de extinción del mismo.

En los supuestos de pactos sucesorios con eficacia de presente y de pactos sucesorios de renuncia, recogidos en el artículo 5, se devengará el impuesto en vida de la persona instituyente, cuando tenga lugar la transmisión.

En los supuestos de adquisiciones mortis causa en las que de acuerdo con lo previsto en el artículo 1006 del Código Civil la persona transmisaria sucede directamente a la causante, el impuesto se devengará el día del fallecimiento de la persona transmitente.

2. En las adquisiciones a título lucrativo e «inter vivos» el impuesto se devengará el día en que se cause o celebre el contrato.

En las adquisiciones de bienes y derechos que tengan la consideración de negocios jurídicos a título gratuito e «inter vivos» de acuerdo con las salvedades establecidas en el artículo 5, el impuesto se devengará el día en que tenga lugar la transmisión.

3. Izendatukoaren oinordetza eskubideak izendatzailea bizirik dagoela xedatzen badira dohainik, «inter vivos» edo «mortis causa» moduko egintzen bidez, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, zerga ez da sortuko izendatzailearen heriotza egunera arte.

4. Kontratzaile edo aseguratuaren biziraupenaren kasurako bizitza aseguru baten onuradunak kopuruak eskuratzen dituzenean, ulertzen da egintza edo kontratua jaso beharreko lehen kopurua edo kopuru bakarra onuradunak exijigarria denean kausatzen dela.

5. Ulertuko da, beti, eraginkortasuna baldintza, termino edo fideikomiso baten edo beste edozein mugapenen existentziak etenda duten ondasun eskurapen guztiak eginda daudela muga horiek desagertzen direnean, eta momentu horri begiratuko zaio ondasunen balioa eta karga tasak zehazteko.

50. artikulua. Preskripzioa.

1. Lau urteetara preskribatuko dira Zerga Administrazioak likidazioaren bidez zerga kuota zehazteko duen eskubidea eta zerga zehapenak jartzeko egiten duen ekintza.

2. Epe hori autolikidazioa aurkezteko jarritako epea amaitzen den egunetik aurrera hasiko da. Zehapenak jartzeko ekintza kasuan, aldiz, araua hausten denetik aurrera hasiko da epea.

3. Atzerriko funtzionarioek baimendutako eskrituren kasuan, preskripzio epea haiek edozein administrazio espainiarretan aurkezten diren egunetik aurrera hasiko da, salbu Espainiak sinatutako nazioarteko itun, hitzarmen edo akordio batean epe hori hasteko beste data bat jartzen bada.

4. Agiri pribatu batera erantsitako dohaintza bat edo kosturik gabeko «inter vivos» moduko beste negozio juridiko batzuk direla kausa egiten diren eskurapenetan, preskripzio epeak Kode Zibileko 1227. artikuluan arabera agiriaren datak hiru garrenen aurrean ondorioak dituen datatik aurrera hasiko dira.

Presuntzio egingo da agiri pribatuek duten data zerga honen autolikidazioarekin batera haiek aurkezten diren eguneko dela, betiere aurretik Kode Zibileko 1227. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako bat gertatu ez bada. Izan ere, horrelakoetan kontuan hartuko den data eransketarena, inskripzioarena, heriotzarena edo ematearena izango da, hurrenez hurren.

5. Jarauntsiari uko egin eta arbuizatzearen ondorio diren eskurapenei dagokien likidazioaren bidez zerga zorra zehazteko Zerga Administrazioak duen ahalaren erabileraren preskripzio epeak eskurapen horiek egiten diren datatik aurrera hasiko dira.

6. Preskripzio epea martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, jasotakoaren arabera etengo da.

VIII. TITULUA

ARAU BEREZIAK

51. artikulua. *Gozamenaren, erabileraren eta biztantearen beste erregela berezi batzuk.*

1. Gozamen, erabilera eta biztante eskubideak eskuratzean, autolikidazio bat egingo da eskubide horien balioan oinarrituta, hala badagokio eskuratzailari dagokion murriztapena aplikatuta.

2. Gozamen eskubideari dagokionez, erregela hauek beteiko dira:

a) Gozamina azkentzen denean, eraketa titularen arabera exijituko da zerga.

3. En la disposición a título gratuito, por actos «inter vivos» o «mortis causa», de los derechos sucesorios de la persona instituida en vida de la instituyente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 106 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, el impuesto no se devengará hasta el día del fallecimiento de la instituyente.

4. Cuando se trate de la adquisición de cantidades por la persona beneficiaria de un seguro de vida para caso de supervivencia de la persona contratante o de la asegurada, se entiende que el acto o contrato se realiza aquel día en que la primera o única cantidad a percibir sea exigible por la persona beneficiaria.

5. Toda adquisición de bienes cuya efectividad se halle suspendida por la existencia de una condición, un término, un fideicomiso o cualquier otra limitación, se entenderá siempre realizada el día en que dichas limitaciones desaparezcan, atendándose a este momento para determinar el valor de los bienes y los tipos de gravamen.

Artículo 50. Prescripción.

1. Prescribirá a los cuatro años el derecho de la Administración tributaria para determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación y la acción para imponer sanciones tributarias.

2. Este plazo comenzará a contarse desde el día en que finalice el plazo establecido para la presentación de la oportuna autoliquidación. En el caso de la acción para imponer sanciones, desde que se cometiera la infracción.

3. En el supuesto de escrituras autorizadas por funcionarios extranjeros, el plazo de prescripción se computará desde la fecha de su presentación ante cualquier Administración española, salvo que un Tratado, Convenio o Acuerdo Internacional, suscrito por España, fije otra fecha para el inicio de dicho plazo.

4. En las adquisiciones que tengan su causa en una donación o en otros negocios jurídicos a título lucrativo e «inter vivos» incorporados a un documento privado, los plazos de prescripción comenzarán a contarse a partir del momento en que, conforme al artículo 1227 del Código Civil, la fecha del documento surta efectos frente a terceros.

Se presumirá que la fecha de los documentos privados es la de su presentación junto con la autoliquidación de este impuesto, a menos que con anterioridad haya ocurrido alguna de las circunstancias previstas en el artículo 1227 del Código Civil, en cuyo caso habrá que estar a la fecha de la incorporación, inscripción, fallecimiento o entrega, respectivamente.

5. Los plazos de prescripción del ejercicio de la potestad de la Administración tributaria para determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación correspondiente a las adquisiciones derivadas de la renuncia y repudiación de la herencia, comenzarán a contarse desde la fecha en que éstas se produzcan.

6. El plazo de prescripción se interrumpirá de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

TÍTULO VIII

NORMAS ESPECIALES

Artículo 51. *Otras reglas especiales del usufructo, uso y habitación.*

1. Al adquirirse los derechos de usufructo, uso y habitación se girará una autoliquidación sobre la base del valor de estos derechos, con aplicación, en su caso, de la reducción que corresponda a la persona adquirente.

2. En relación con el derecho de usufructo se observarán las siguientes reglas:

a) En la extinción del usufructo se exigirá el impuesto según el título de constitución.

b) Jabetza soila eskuratzean, autolikidazio bat egingo da, haren balioa kontuan hartuta eta, hala badagokio, hari jabe soilak eskubidez dagozkion murriztapen gutziren zenbatekoa gutxituta.

Aurreko likidazioaren kalterik gabe, gozamina azkentzean, lehendabiziko jabe soila behartuta dago, kontzeptu horrengatik, jabetza soila eskuratzean zerga ordainduta ez duten ondasunen balio osoaren portzentajearen gainean dagozkion autolikidazioa ordaintzera. Jabaria kontsolidatzeko unean ondasunek zuten balioaren gainean aplikatuko da portzentaje hori, azkentzearen momentuan indarrean izan diren zergaren araudian jasotako erregelei jarraituz.

c) Jabe soilak bere eskubidea eskualdatzen badu, alde batera utzita eskuratzailerari une horretan jabetza soilak duen balioa oinarrituta eta eskurapen titulari dagozkion karga tasa aplikatuta egiten duen autolikidazioa, jabari osoa jabe soil berriaren gainean aplikatuko da portzentaje hori, azkentzearen momentuan indarrean izan diren zergaren araudian jasotako erregelei jarraituz.

d) Dena den, baldin eta jabaria lehendabiziko edo ondorengo jabe soilengan kontsolidatzea epearen amaiera edo gozamenaren heriotza ez den arrazoi baten ondorio bada, eskuratzailerak bi likidazio hauetako handiena bakarrik ordainduko du: jabaria zatibanatzeagatik egin gabe dagoena eta gozamina azkentzea dakarren negozio juridikoari dagozkiona.

Jabariaren kontsolidazioa gozamenaren egiten bada, harek ordaindu beharko du bera jabe soil bihurtzen duen negozio juridikoari dagozkion likidazioa.

Kontsolidazioa hirugarren batengan egiten bada, aldi berean gozameneko eta jabetza soilako eskubideak eskuratuko ditu, eta mota horretako eskurapenei dagozkien likidazioak bakarrik egingo dira.

e) Ondorengo gozamenetan, jabetza soilaren balioa portzentaje handieneko gozamina kontuan hartuta kalkulatu da. Gozamen hori azkentzean, jabe soilak ordaindu beharko du jabetza soilaren balioa izan duen balio gehikuntzaren gainean. Eta horrela egingo da, behin eta berriz, gainerako gozamenak azkentzean.

Arau bera aplikatuko da aldi berean bi ezkontideen edo izatezko bikoteko bi kideen alde ezarritako gozamenaren ere, baina azkena hiltzen denean bakarrik egingo da jabariaren kontsolidazioak dakarren autolikidazioa.

f) Dagoeneko onartuta dagoen gozamenari uko egitea, nahiz eta uko egite hori hutsa eta soila izan, gozamenaren jabe soilari egindako dohaintzat hartuko da zerga ondorioetarako.

g) Gozamina gozamenaren biziartean besteko suntsiarazte baldintzarekin eratzen bada, biziarteko gozamenetarako jarritako erregelak bidez autolikidatuko da, non eta, baldintza beteta, beste autolikidazio bat egiten bada, aldi baterako gozamenetarako jarritako erregelei jarraituz, eta bidezko zuzenketak egiten badira, dena delako zenbatekoa ordainduta edo itzulketa eskatuta.

3. Eskurapenaren unean, erabilera eta biztantzeko eskubideak eskuratzen dituen autolikidazioa egingo du haien balioarengatik, azken horri murriztapenak gutxituta, hala badagokio. Erabilera eta biztantzeko eskubideei dagozkienez:

a) Autolikidazioaren zerga oinarrian kontuan hartuko da zer harreman duen eskubide horien titularrak gozamenarekin, halakorik badago, edo, halakorik ez badago, jabe soilarekin.

b) Erabilera eta biztantzeko eskubideak azkentzean, zerga eskatuko zaio gozamenari, gozamenik badago, haren balioak izandako gehikuntzaren gainean, egin beharreko murriztapenak

b) Al adquirir la nuda propiedad se girará una autoliquidación teniendo en cuenta el valor correspondiente a aquélla, minorado, en su caso, por el importe de todas las reducciones a que tenga derecho el nudo propietario.

Sin perjuicio de la autoliquidación anterior, al extinguirse el usufructo el primer nudo propietario viene obligado a satisfacer, por este concepto, la autoliquidación correspondiente sobre el porcentaje del valor total de los bienes por el que no se hubiese satisfecho el impuesto al adquirirse la nuda propiedad. Dicho porcentaje se aplicará sobre el valor que tuvieran los bienes en el momento de la consolidación del dominio, y de conformidad con las reglas de la normativa del impuesto vigentes en el momento de la extinción.

c) En el supuesto de que el nudo propietario transmitiese su derecho, con independencia de la autoliquidación que corresponda a la persona adquirente sobre la base del valor que en ese momento tenga la nuda propiedad y por el tipo de gravamen que corresponda al título de adquisición, al consolidarse el pleno dominio en la persona del nuevo nudo propietario, este autoliquidará en base a la que hubiera correspondido al primer nudo propietario de conformidad con lo dispuesto en la letra b) anterior.

d) No obstante, si la consolidación del dominio en la persona del primero o sucesivos nudos propietarios, se produce por una causa distinta al cumplimiento del plazo previsto o a la muerte de la persona usufructuaria, la persona adquirente sólo pagará la mayor entre las dos liquidaciones siguientes: la que se encuentre pendiente por la desmembración del dominio y la correspondiente al negocio jurídico en cuya virtud se extingue el usufructo.

Si la consolidación se opera en la persona usufructuaria, pagará éste la liquidación correspondiente al negocio jurídico en cuya virtud adquiere la nuda propiedad.

Si se operase en un tercero, adquirente simultáneo de los derechos de usufructo y nuda propiedad, se girarán únicamente las liquidaciones correspondientes a tales adquisiciones.

e) En los usufructos sucesivos el valor de la nuda propiedad se calculará teniendo en cuenta el usufructo de mayor porcentaje, y a la extinción de este usufructo pagará el nudo propietario por el aumento de valor que la nuda propiedad experimente, y así sucesivamente al extinguirse los demás usufructos.

La misma norma se aplicará al usufructo constituido en favor de los dos cónyuges o los dos miembros de la pareja de hecho simultáneamente, pero sólo se practicará autoliquidación por consolidación del dominio cuando fallezca el último.

f) La renuncia de un usufructo ya aceptado, aunque sea pura y simple, se considerará a efectos fiscales como donación de la persona usufructuaria a la nuda propietaria.

g) Si el usufructo se constituye con condición resolutoria distinta de la vida de la persona usufructuaria, se autoliquidará por las reglas establecidas para los usufructos vitalicios, a reserva de que, cumplida la condición, se practique nueva autoliquidación, conforme a las reglas establecidas para el usufructo temporal, y se hagan las rectificaciones oportunas, procediendo al ingreso o a la solicitud de devolución del importe correspondiente.

3. La persona adquirente de los derechos de uso y habitación practicará autoliquidación, en el momento de su adquisición, por el valor de los mismos, minorado, en su caso, por las reducciones que le correspondan. En relación con los derechos de uso y habitación:

a) La base imponible de la autoliquidación que se practique tendrá en cuenta la relación del titular de dichos derechos con la persona usufructuaria, si existiera, o en caso negativo con la nuda propietaria.

b) Al extinguirse los derechos de uso y habitación se exigirá el impuesto a la persona usufructuaria, si la hubiere, en razón al aumento del valor del usufructo, minorado, en su caso,

eginda; eta, gozamenik ez badago, berriz, jabe soilak egingo du eskubide horiek azkentzeari dagokion autolikidazioa.

Gozamena azkentzen bada erabilera eta biztantzeko eskubideak baino lehenago, jabe soilak egin beharko du gozamen eskubide hori azkentzeak eragindako kontsolidazio partzialari dagokion autolikidazioa, jabetza soilaren balioak azkentzearen ondorioz izan duen gehikuntzaren arabera.

52. artikulua. *Gozamen edo erabilera eskubidearekin pareka daitezkeen instituzioak.*

1. Kausatzailearen xedapenen ondorioz edo oinordetzaren arau zibilak aplikatzeagatik, pertsona bati jarauntsi bateko ondasunak osorik edo partez gozatzeko eskubidea ematen zaionean, dela aldi baterako dela bizi artean, zerga ondorioetarako ulertuko da gozamen edo erabilera eskubide bat dagoela, eta eskubide hori, izena zeinahi duela ere, baloratuko da aldi baterako edo bizi arteko gozamenetarako edo erabilera eskubideetarako ezarritako arauei jarraituz.

Hala ere, eskuratzaileak ondasunak xedatzeko eskubidea badu, jabari osoari dagokion zerga likidatuko zaio. Hala ere, jabetza soilari dagokion zergaren zatia itzuli ahal izango zaio, baldin eta justifikatzen bada ondasun berberak testamentugileak edo aplikatu beharreko araudiak adierazitako pertsonari eskualdatu zaizkiola.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean araututa dauden komisario bidezko testamentuetatik eta testamentu ahalordeetatik datozen gozamen eskubideen kasuan 55. artikuluan espresuki ezarritako arauak aplikatuko dira.

53. artikulua. *Ordezpenak.*

1. Ordezpen arruntean, ordezkoa kausatzailearen jaraunsele izango dela ulertuko da eta, beraz, zerga exijituko zaio, kontuan hartuta kausatzailearekin duen ahaidetasuna, baldin eta izendatutako jaraunsele aurretik hiltzen bada edo jarauntsia onartu ezin badu.

Izendaturiko jaraunseleak jarauntsia onartu nahi ez badu, 63. artikuluan jaraunsiari uko egiten zaionerako xedatutakoa hartuko da kontuan.

2. Ordezpen pupilar eta kuasipupillarretan, ordezkoa ordeztuaren jaraunsele dela ulertuko da eta, beraz, zerga exijituko zaio, ordezpena egiten denean, kontuan hartuta ordezitutako ondorengoarekin duen ahaidetasuna, testamentugileak hiltzean hark ordaindutakoa eragotzi gabe.

3. Fideikomisoetako ordezpenetan, zerga exijituko da fideikomisoa eratzen denean eta ordezpen bakoitzean, kontuan hartuta fideikomisodunak edo ordezkoak kausatzailearekiko duen ahaidetasuna. Fiduziariora eta fideikomisodunak, haietako azkena izan ezik, gozamedun hutsak direla joko da, non eta «inter vivos» edo «mortis causa» moduko egintzak direla medio ondasunak eskuratzeko ahalmena ez duten, kasu horretan jabari osoagatik egin beharko baitute autolikidazioa, 49. artikuluan 5. apartatuan xedatutakoa aplikatuz.

Azken kasu horretan, kausatzaileak ordaindutako zerga itzultzea eskatu ahal izango dute jaraunselearen kausadunek, jabetza soilari dagokion zatian, baldin eta frogatzen badute ordezpenak eragindako ondasunak testamentugileak izendatutako ordezkoari eskualdatu zaizkiola.

54. artikulua. *Fideikomisoak.*

1. Fideikomisoetan, autolikidazioa egiteko epeen barruan jaraunsele fideikomisoduna zein den ezagutzen ez denean, fiduziariora arrotzen arteko oinordetzarako tarifa oinarri likidagarriari aplikatuta ateratzen den emaitza ordaindu behar du, kausatzailearekin duen ahaidetasuna edozein dela.

por las reducciones que le correspondan, y si dicho usufructo no existiera, practicará la nuda propiedad la autoliquidación correspondiente a la extinción de los mismos derechos.

Si el usufructo se extinguiese antes que los derechos de uso y habitación, el nudo propietario efectuará la correspondiente autoliquidación por la consolidación parcial operada por la extinción de dicho derecho de usufructo, en cuanto al aumento que en virtud de la misma experimente el valor de la nuda propiedad.

Artículo 52. *Instituciones equiparables al derecho de usufructo o de uso.*

1. Siempre que como consecuencia de las disposiciones de la persona causante o de la aplicación de las normas civiles reguladoras de la sucesión, se atribuya a una persona el derecho a disfrutar en todo o en parte de los bienes de una herencia, temporal o vitaliciamente, se entenderá a efectos fiscales la existencia de un derecho de usufructo o de uso, valorándose el respectivo derecho, cualquiera que sea su nombre, conforme a las reglas establecidas para los usufructos o derechos de uso temporales o vitalicios.

No obstante, si la persona adquirente tuviese el derecho a disponer de los bienes, se liquidará el impuesto por el pleno dominio, sin perjuicio de la devolución que proceda de la porción de impuesto que corresponda a la nuda propiedad si se justificara la transmisión de los mismos bienes a la persona indicada por la testadora o por la normativa aplicable.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, los derechos de usufructo que se deriven de los poderes testatorios o testamentos por comisario regulados en la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, se registrarán por las normas establecidas expresamente para ellos en el artículo 55.

Artículo 53. *Sustituciones.*

1. En la sustitución vulgar se entenderá que la persona sustituta hereda a la causante y, en consecuencia, se le exigirá el impuesto cuando la persona heredera instituida falleciera antes o no pudiera aceptar la herencia, atendiendo a su parentesco con la causante.

Si no quisiese aceptar la herencia la persona heredera instituida, se estará a lo dispuesto para el caso de renuncia a la herencia en el artículo 63.

2. En las sustituciones pupilar y ejemplar se entenderá que la persona sustituta hereda a la sustituida y se le exigirá el impuesto, cuando se realice la sustitución, atendiendo al grado de parentesco con el descendiente sustituido y sin perjuicio de lo satisfecho por éste al fallecimiento de la persona testadora.

3. En las sustituciones fideicomisarias se exigirá el impuesto en la institución y en cada sustitución teniendo en cuenta el grado de parentesco de la persona instituida o de la sustituta con la persona causante, reputándose a la fiduciaria y a las fideicomisarias, con excepción de la última, como meras usufructuarias, salvo que pudiesen disponer de los bienes por actos «inter vivos» o «mortis causa», en cuyo caso se autoliquidará por el pleno dominio, aplicándose lo dispuesto en el apartado 5 del artículo 49.

En este último caso, las personas causahabientes de la persona heredera podrán solicitar la devolución del impuesto satisfecho por su causante, en la parte correspondiente a la nuda propiedad, si justifican que los bienes afectados por la sustitución han sido transmitidos a la persona sustituta designada por la testadora.

Artículo 54. *Fideicomisos.*

1. En los fideicomisos, cuando dentro de los plazos en que deba practicarse la autoliquidación no sea conocida la persona heredera fideicomisaria, pagará la persona fiduciaria el resultado de aplicar a la base liquidable la tarifa correspondiente a la sucesión entre extraños, cualquiera que sea el parentesco con la persona causante.

Aurreko apartatuan ezarritako erregela ez da aplikatuko, baldin eta fideikomisoduna pertsona talde zehatz batetik izendatu behar bada; izan ere, kasu horretan, kausatzailearekin urrune-neko ahaidetasun maila duen pertsonari dagokion taldearen tarifa aplikatuko zaio oinarri likidagarriari.

2. Aurreko apartatuaren arabera ordaindutakoa fideikomisodunaren probetxurako izango da, hura ezaguna denean, baina ez du ezer itzultzea eskatzeko eskubiderik izango, baldin eta kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera tarifa txikiago bat aplikatu behar bazaio.

Hari dagokion tarifak fiduziarioari aplikatutakoak baino guxtiago ordaintzea badakar, gehien ordaindu duenak edo haren kausadunek eskubidea izango dute soberan ordaindutakoa bueltan jasotzeko, erregelamenduz xedatutakoaren arabera.

3. Autolikidazioa egiteko epeen barruan fideikomisoduna zein den ezagutzen bada, fideikomisodunak kausatzailearekin duen ahaidetasun mailari dagokion tarifaren arabera ordainduko du zerga.

4. Fiduziarioak, edo testamentugileak jarauntsia eskualdatzeko enkargatutako pertsonak, osorik edo partez gozatu baditzaizeko ondasunak, dela aldi baterako dela bizi artean, edo fideikomisozko jaraunslari ondasunak eman arte haien errentak edo produktuak xedatzeko ahalmena badu, gozamenaren gisa ordainduko du zerga, kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera.

Kasu horretan, ondasunen jabetza eskuratzean ere fideikomisodunak zerga ordaindu beharko du, fiduziarioak ordaindutakoa bere alde konputatu gabe.

5. Jaraunslari fiduziarioari jarauntsiko ondasunak jabetzan uzten zaizkion fideikomisoetan, nahiz eta zamaren bat kentzeko izan, jaraunslari horren kargura likidatuko da jabetza eskuratzeak dakarren zerga, zama kenduta berau kengarria bada. Horrelakoetan, zamaren ondoriozko onura eskuratzen duena ezaguna bada, berak ordainduko du zerga, egintzari juridikoki dagokion titulu edo kontzeptuarengatik; aldiz, onuraduna ezaguna ez bada, jaraunslari ordainduko du kontzeptu horri dagokion zerga, baina zamarengatik ordaindutako zerga onuradunari jasalarazi ahal izango dio, onuraduna zein den ezaguna denean.

55. artikulua. Gozamena testamentu ahalordearen menpeko jarauntsietan.

1. Testamentu ahalordeetan pertsona jakin bati eman bazaio jarauntsiko ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horrengatik autolikidazio bakarra egingo da, gozamen-dunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera eta biziarteko gozamenaren arauak aplikatuta.

2. Testamentu ahalordean gozamena ahalorde hori erabiltzean azkentzen bada, gozamen horrengatik bi autolikidazio egingo dira gozamen-dunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehen likidazio bat, kausatzailea hiltzen denean, biziarteko gozamenaren arauak aplikatuta.

Alabaina, testamentu ahalordea erabiltzeko epea zehaztuta badago, lehen likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauak aplikatuta egingo da, ahalordea erabiltzeko ezarritako dagoen gehieneko epearekin.

b) Beste likidazio berri bat, testamentu ahalordea erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauarekin bat, kausatzailearen heriotzatik igarotako denborarengatik. Aurreko likidazioarengatik ordaindu dena konturako sarreratzat joko da, eta diferentzia gozamen-dunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

b) letra honetan aipatzen den autolikidazioa aurkeztuko da testamentu ahalordea baliatzearengatik edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik jaraunslari gertatzen diren autolikidazioak.

